

KIROLA "KIROLA EUSKARAZ" FITXA BERRIEN AURKEZPENA · GEHIGARRIA GAZTE GEHIGARRIA
KULTURA UXUE ALBERDIK BIGARREN SARIA IRABAZI DU BERGARAKO MAITASUN GUTUNEN LEHIAKETAN

BARREREN

ASTEKARIA

SINUOSE KOLEKTIBOAREN ERAKUSKETA

Ezkontzari buruzko gogoetak

"EZKONTZEA PENTZAUTE ETA ZOPEA TENPLAUTE" (esaera zaharra)

....

Makina
Erremintaren
Institutua
Instituto de
Maquina
Herramienta

Makina
Erremintaren
Institutua

Azkue Auzoa, 1
20. 870 ELGOIBAR
Gipuzkoa

Tel.: 943 74 82 64
Faxa: 943 74 41 53

ingenieria@fmh.es
www.fmh.es

cesi aquitaine
ponou-charentes



AENOR


0¹⁰%

Euskadi

2003 / 2004 IKASTURTEA TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA



au
7-t- Itr



BILERA INFORMATIBOA:

Otsailaren 19an,
arratsaldeko 18:30ean
prestakuntzaren ezaugarriak eta
sarrera-baldintzak azaltzeko:

- Makina Erremintaren Institutuko
(IMHko) instalazioen bisita.
- Bilera informatiboa

- Enpresarekin elkarlanean
garatutako lanbide-proiektua.
- Lan-kontratua
prestakuntzaren lehen egunetik.
- Eraitza erakargarriak:
gehiengoa lanean, % 40
zuzendaritzako ardurekin.

Maiatzaren 23ra arte MATRIKULA EPEA ZABALIK

ZEZEN-BIDE AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era



Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR

40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



6 1956an estreinako gau-eskola

Aurreko batean ere esan genizuen 50eko hamarkadan oso giro erdalduna zegoela Elgoibarren. Euskara etxe batzuetan baino ez zen entzuten, eta kalean gaztelania zen nagusi.

Egoera honi buelta eman nahian, 1956an, Pako Juaristi zenak lortutako baimen bati esker, Euskaltzaindiaren Academia de la Lengua Vasca izeneko helduen Gau-Eskola jarri zen martxan Elgoibarren. Eta Gau-Eskolak atek zabaldu orduko 80 lagun inguru hasi ziren euskalduntzen eta alfabetatzen. Lanetik irten ondoren joaten ziren euskara ikastera eta hilean 5 pezetako kuota ordaintzen zuten.

46 urte inguru pasa arren, Itziar Condek akorduan ditu orduko kontuak: "Akordatzen naiz etxerako lanak izaten genittuala. Astian behin juten ginan gau-eskolara eta idazten eta irakurtzen ikasten genduan".

Don Jose Juaristi eta Don Jose Antonio San Pedro apaiz euskaltzaleak izan ziren estreinako bi irakasleak. Ez zuten txikitarik ere kobratzen eta, euskara erakusteko metodologiarik eta materialik ez zegoenez, ahal zuten moduan moldatzen ziren eskolak emateko.

Eta bitxia badirudi ere, Falangeak lagatako lokaletan ematen zituzten gau-eskolak. Itziarrek esan digunez "mahaixak zikin-zikinak egoten zian eta lokalian zauan Espainiako banderiakin garbitzen genduzan".

Baina denborarekin ikasleak gutxitzen joan ziren, eta 15-20 lagun baino ez ziren geratu. Ondorioz, 56an zabaldutako atek 58an itxi egin behar izan zituzten. Baina ez pentsa betirako itxi zirenik. Datorren astean kontatuko dizuegu zelan indartu zen berriz ere gau-eskola gure herrian.

Felix Etxeberria eta Imanol Larrañaga

iritzia



Jaso, Batu, Askatu

Madrilek legez kanpo jarri nahi ditu herri honen eskubideak defenditzen dituztenak. Legez kanpo jarri nahi ditu, jarri ditu jadanik, ezkertiar eta abertzale pentsamenduarekin herri honi altematiba bat eskaini nahi diotenak. Batzuk pentsatu nahi dutenaren aurka, debekua ez da sigla baten aurka soilik; haratago doa. Euskal Herrian sor daitekeen prozesu demokratikoa saihestu nahi du, errotik moztu, konstituzioa eta Estatutura erakarri indar politiko guztiak, ilegalizazioaren mehatxupean.

Euskal gizartea gizarte heldua da eta ibilbide zehatza egin du azken urteetan. Gaur egun euskal selekzio nazionalen beharra oso barneratua du. Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan ezinbestekotzat jotzen du gure hizkuntzak har dezan arnas. Euskal esparru ekonomikoa lortzeko premia egunero bizi du. Gatatzaren oinarri politikoa gehiengo batek onartzen du. Euskaldunok gure etorkizunaren erabakiak hartu behar ditugula onartua du gehiengo batek. Euskal presoek giza eskubideak errespetatuak izan daitezten behin eta berriz aldarrikatu da hamaika esparru desberdinetan. Aurrera egiteko oinarriak finkatuak daude gizartean. Batzeko ordua da; ados gauden puntuen inguruan bildu eta etorkizuna marrazteko, gauzatzeko ordua da. Alternatiba faltsuetatik ihes eginez (nola arraio atxikiko da "libreki" libre ez dena, aukera guztiak ez dituen?), lurraldetasuna ongi finkatuaz (zazpi probintziok osatzen dugu Euskal Herria).

Euskaldunok ez gara beste edozein herri baino gehiago baina ezta gutxiago ere. Gure ahots propioa nahi dugu European eta munduan. Eta munduko eskubide guztia daukagu hori errespetatua izan dadin.

Pello Mendizabal

Kexak	5
motz MotZ	6
gehigarria	11
kiRoLak	1
aGenda	4

Urruzunoren begi ezkutua Sarrionandiaren Ipumak

HAMAR URTE BASERRIETAN ESKEAN

1994ko otsailaren 4an kendu genizkion hautsak baserriz baseri eskean jarduteko ohitura zaharrari. Orduetik, Santa Ageda bezpera egun berezia izan da Elgoibarko Izarraren egutegian. Baina guretzat berezia izan bada, zuoi eskerrak izan da, baserritarroi eskerrak. Zuek eman diozue esanahi berezia egun honi; zuek zarete Santa Agedari baserriko atea zabaltzen diozuenak; zuek zarete koplak entzutean irribarrea edo negarra erakusten duzuenok; zuek zarete limosna zakura borondate onenarekin botatzen duzuenok; azken finean, zuengatik egiten dugu egiten duguna, zuengatik eta zuei eskerrak.

Hamar urte bete ditugu aurten. Eta aurrerantzean ere, zuek hala nahi duzuen bitartean, otsailaren 4an ordenadore eta bestelako teknologiak bazter batean laga eta atzera egingo dugu herri honen historian. Txapela eta abarkak jantzi, makila eskuan hartu eta zuen atarian izango gara koplak kantari. Zuek atearen beste aldean zain izango zaretelakoan, datorren urtera arte.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

ZORTZI URTE AHAZTEZIN

Esan ohi da, pertsona batek herriaren alde egin dezakeen lanik atsegina bere herriko alkate izatea dela. Nik neuk ikusi dut, eta egiazta dezaket esaera zahar hori bete-beteko dela. Elgoibarko Alkatetza uzteko ordua iritsi da, Eusko Jaurlaritzako Portuetako Administrazio eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren ardura eskaini didate-eta. Nahiz eta maila honetako erroka berri bati aurre egiteko ilusioa handia izan, aurrez badut nostalgiaren antzeko zerbait; jakin badakit, datozen hilabeteetan eta urteetan ere bai, herritarrekiko eguneroko harremanak faltan botako ditudala.

Alkate izan naizen zortzi urte hauetan egiteko hau izan dut gogokoen: Elgoibar deritzogun errealtate atsegina osatzen duten harreman sozial, kultural eta ekonomikoak sakonki ezagutu izana. Bi legealdi luze eta sakon hauetan arazo eta zailtasun ugari izan ditugun arren, nire uste apalean, gauza on asko ere egin dira.

Ez dut agur hau gehiegi luzatu nahi, eta horregatik, ez ditut zortzi urte hauetan egindako guztiak aipatuko. Hala ere, ezin ditut ahaztu niretzat garrantzitsuak izan diren hainbat jarduerak: Albitxuriko industrialde berria, Deba ibaiaren uholdeen aurkako defentsa plana, Musika Kontserbatorio berria, gure aurrekoen memoria historikoa berreskuratzea, edo Udalaren zorra murriztea. Errelebo lasterketa gisakoa da Udalaren bizimodu dinamikoa. Uste dut, kirol legez eta ahalegin guztiak eginez burutu dudala lasterketa hori (Mugertza Memorialean izan diren txapeldun handiek erakutsi diguten bezala). Orain, ordea, iritsi da lekukoa emateko ordua. Mila esker elgoibartar guztioi, ahaztuko ez ditudan zortzi urte hauetan izandako esperientziengatik.

Guillermo Garate Urzelai



"nik idatzi nahi nizkioke bi hitz, esanez haren izenburuek irakurtzera gatibatzen dutela irakurle izan nahi ez duena ere... eta sekretuak balira lez bihotza taupaka jartzen dutela haren hitzek..." horixe idatzi nuen bart egun batez.

Narrazioak ipuin bildumaren inguruan hainbat aipamen jaso ditzakegu: "Irakurle eta idazleen belaunaldi oso bat markatu du liburu honek, askoren gogoan iltzaturik geratu baitira bertako hitz eta ipuinak, nolabait izendatzekotan lilura deituko genukeen sentimendu batez" horrela definitu zuen Aingeru Epaltzak.

Narrazioak, Atabala eta euria, Ifar aldeko orduak eta Hitzen Ondoeza ekarri nahi nituzke gure artera eta horien izena lau haizeetara barreiatu egunkariak bezala gure artean zabal daitezten.

Sarriren ipuinek gure herriko eta atzerriko kondairak hurbiltzen dizkigute, errealtatea erdi ezkutuan, erdi agerian utziz. Guztien artean, ordea, Hitzen Ondoeza galdu egiten zaigu apika Sarriren ekarpen zabalean. Hiztegi formatuan kodetua, zentzu onez hautaturiko hitz arras desberdinen bilduma da. Euskara ederrean, istorioaren eta historiaren mugak zalantzan jarri eta errealtatea hankaz gora jartzen duten hitzak, erabilera egokia lortzen ez eta gaixo dauden hitzak...

Ainhoa Lendinez

BaRReir

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

Tr: 943 74 41 12

Publizitatea:

943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila:

barren@topagunea.com

Helbide intormatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irati Agirreazaldeggi, PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodriguez GenerEA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Eduarne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRINATEGIA Gertu Koop., E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Sij

ELGOIBARKO IZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundulako aldizkaria.




3111 kutxa
SUSTENEGI

4'DANOBAT
LAGUNAS KERRAMIENTA

S'GOITI 4'ISTAIRTA
GRUPO DANOBAT

- Jubilatu batek kontatu digunez, **San Frantzisko iturriaren aurreko aldean, losak solte daude: "Aspalditik daude pare bat losa solte San Frantzisko iturriaren aurrean, eta oso arriskutsua da. Jende ugari ibiltzen da paraje honetan, eta ezbeharren bat gertatu aurretik, losak behar den moduan jartzea komeni da"**.



112.0111

- Herritar batek **Ikastola txalotu nahi du, eta batez ere gurasoak, haurtzaindegiko eta haur eskolako gela berriak oso politak gelditu direlako: "Ea etorkizunean gurasoak egiten ari diren apustuak, udaletxetik eta instituzioetatik laguntza gehiago jasotzen duen"**.



- Ume batzuk esan digutenez, **herriko parkeak oso zahartuta daude: "Herriko parke gehienak oso egoera txarrean daude. An'eiturrekoan kolunpioak apurtuta daude, Leku Ederrekoa beti zikinduta egoten da, eta euria egiten duenean, egurra busti egiten da, eta dena labaina eta arriskutsua jartzen da. Ezin bada parke berririk egin, zaindu edo berritu ditzatela dauzkagunak"**.

Barrak, Birak eta Barneak



Ubitarte Gain-eko babes ofizialeko etxeak eraikitzeko proiektua ideia-lehiaketa bitartez erabakiko da

2005. urterako Ubitarte Gain-eko obra guztiak amaitzea espero dute

Visera (Euskadiko Etxebizitza eta Lurrak SA) erakunde publikoak antolaturik, arkitektura enpresa desberdinek hartuko dute parte ideien lehiaketa honetan. Ez dago proiektua diseinatzeko araurik, enpresa bakoitzak berea aurkeztuko du, eta azken erabakia epaimahaiak hartuko du. Ekintza honek ez ditu jarraitzen babes ofizialeko etxeak eraikitzeko arauak, baina modu honetan, Elgoibarko toki pribilegiatu honetan eraiki ahal izatea saritu nahi da. Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako kontseilariak azaldu zuen bezala, Ubitarte Gain-eko ingurunea, herriko



Bi etxebizitza bloke eraikiko dituzte Ubitarte Gain-eko lur sailean.

toki garrantzitsuenetarikoa da; izan ere, Sigmako zubitik herrira sartzean ikusten den lehenengo toki baita.

2005erako amaituta

Iazko abenduan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eta Elgoibarko Udalak sinatu zuten akordioan, Ubitarte Gain-eko etxebizitzak bi bloketan eraikiko zirela erabaki zuten. Lehenengoak 75 etxebizitza izango ditu, eta bigarrenak 25. Javier Madrazok jakinarazi zuenez, epeak ondo betez gero, 2004. urteko lehenengo zatian egingo da etxebizitzaren zozketa, eta 2005. urterako, dena bukatuta egongo da.

Etxegiña taldeak Santa Eskean batutako 1.238,09 euroak Caritasi emango dizkio



Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, 50 lagun inguru atera **Eziren** otsailaren 4an, kalez-kale Santa Eskean. Bi taldetan banatuta, herriko kale guztiak zeharkatu zituzten. Kepa Urain izan zen talde bateko koplaria, eta Jesus Urizar bestekoa. Bakoitzak bere ibilbidea egin ostean, Urasandiko auzoan elkartu ziren. La Union Elkartean hamarretakoa egin ostean, eta koplaria Kepa Urain izanik, San Lazaro egoitzara abiatu ziren. Bertako kideei abestu ostean, herriko kaleak igaro zituzten. Errosario kaleko Ama Birjinari salbea abestuz amaitu zuten Santa Eskea. Baltasar Elkartean egin zuten bazkaria, eta bertan bukatu zuten eguna. 1.238,09 euro bildu zituzten, eta Caritasi emango diote.

Kaleak garbitzeko makina berria erosi du Udalak, Soraluze eta Debako udalekin batera

Elgoibar, Soraluze eta Debako Udalek, kaleak garbitzeko makina berezi bat erosi dute. Makina hau, hidrogarbigailua da, hau da, ura da garbiketarako erabiltzen duen elementu bakarra. 300 bar-etako presioan botatzen du ura, eta 155°tako temperatura hartu dezake. Makinak 36.000 euro inguru balio ditu, eta Elgoibarko Udalak erdia baino apur bat gehiago ordaindu du. Hilabetez egongo da makina hau gure artean. Ondoren beste bi herrietatik pasatuko da, eta gero berriro ekarriko dute Elgoibarrera. Urtean sei hilabetez izango da Elgoibarko kaleak garbitzeko prest. Hasi dira dagoeneko herriko kaleak garbitzen, eta udaletxetik jakinarazi digutenez, emaitzak oso onak izan dira. Aurrerantzean auzoak eta labainkorrak dauden espaloiak garbitzeko asmoa daukate.





Kontzentrazioa izan zen Plaza Handian Andoaingo atentatuaren kontra

Joan zen larunbatean, otsailak 8, Andoainen izandako atentatuaren kontra protesta egiteko, kontzentrazioa izan zen astelehenean eguerdiko 12:00etan udaletxe aurrean. Joseba Pagazaortondua, Andoaingo Udaltzaingoaaren buruzagi, eta PSE-PSOeko militantea zena hil zuten. Herritarrekin batera, Udaleko ordezkariak ere izan ziren kontzentrazioan. 15 minutuz isilean egon ondoren, txalo zaparrada batekin amaitu zuten bilkura.

Elgoibarko Batasunako Udal taldeak mozioa aurkeztuko dio Udalari

2002ko azaroaren 23an Iñaki Jaio eta Iñaxio Iriondo preso elgoibartarren aldeko omenaldia deituta zegoen, baina ekitaldi guztiak bertan behera gelditu ziren. Omenaldia prestatzen ari zirela, Ertzantzaren lau furgoneta iritsi ziren, eta antolatzaileak identifikatu nahi izan zituzten. Plaza Handian izandako istiluen ondorioz, 11 elgoibartarri "terrorismoaren apologia" eta "autoritateari aurka egitea" leporatu zieten. Madrilgo Auzitegi Nazionaleraino iritsi da kontua eta bi hilabete barru izango dute erabakiaren berri. Kaltetuek otsailaren 11n eskainitako prentsaurrekoan azaldu zutenenez, Udalaren jarrera salatu nahi dute eta datorren otsailaren 22rako "Errepresioa ez da irtenbidea" lemapean, manifestaldia antolatzeko asmoa daukate. Bestalde, Elgoibarko Batasunako Udal taldeak mozioa aurkeztuko du udaletxean.



Victoria Cambero izan da Merkatu Plazako zozketaren irabazlea

Hilabete honetan, Lekeitioko talasoterapia hotelean, bi pertsonentzako asteburua zozketatzen zen, eta Victoria Cambero izan da irabazlea. Datorren hilabetean 60 euroko lau txeke zozketatuko dira.



Debabe Udal Euskaltegikoak ETBko "Irrikitan" saioan izan ziren

Debabe Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak, ETB leko "Irrikitan" saioan izan ziren joan zen otsailaren 5ean. Argazkian, Patxo Telleria eta Mikel Martinez, saioaren aurkezleak azaltzen dira Debabe Udal Euskaltegiko kideekin batera. Euskal Aktore ezagunek egindako umorezko monologoak dira "Irrikitan" saioaren ardatza. Joseba Apaolaza, Kike Amunarriz, Iñaki Irastorza, Pantxo Irigarai, Ana Elordi, Itziar Irigoien, eta Aitor Txarterina aktoreen emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten, eta esan digutenez, oso saio atsegina eta umoretsua izan zen.



OTSAILAK 14, SAN BALENTIN EGUNA

AKORDUAN AL DAUKAZU ZURE BIKOTEARI MAITE ZENUELA ESAN ZENION EGUNA?



ISABEL SANCHEZ
65 urte, etxekoandrea

Duela 39 urte izan zen, baina atzo izango balitz moduan gogoratzen dut. Madalako festak ziren, eta bera motor batean iritsi zen. Begiz jo nuen, esan egin nion, eta gero berarekin ezkondu nintzen.

JOSEBA GOROSABEL
32 urte, administraria

Egixa esanda, ez dot oso ondo gogoratzen, baina juerga batian izan zala uste dot. Errezena festa edo juerga giruan deklaratzia izaten da.



SUSANA ARMENDARIZ
34 urte, kamareroa

Ez nion garrantzia berezirik eman. Egun bat gehiago izan zen nire bizitzan. Orain gainera banatuta gaude, eta ez dut gogoratzen.

MARI CARMEN PRADO
52 urte, etxekoandrea

Urte asko pasatu dira, eta gainera orain banatuta gaude. San Balentin egunak ez dit ezer berezirik esaten. Hala ere, gogoratzen dut, eta oso polita izan zen. Dantzan ari ginela berak esan zidan niri.



HELIBERTO MEDINA
69 urte, jubilatua

42 urte pasatu dira, baina ondo gogoratzen dut. San Bartolomeak ziren, eta dantzan ari ginela esan nion. Ez daukagu San Balentin egunean oparirik egiteko ohiturarik, baina afariren bat egingo dugu.


IÑIGO LEGORBURU
40 urte, mekanikoa

Ez nion aparteko garrantziarik eman momentu horri. Jaixetan izan zala akordatzen naiz, afari baten ostian, juerga giruan. Normalian momentu horrek aprobetxatzen dia deklaratzeko.



7. URTEURRENA

1996ko otsailaren 11n, 21 urte zituela hil zen
GAIZKA ILDOS ARAKISTAINen oroimenez
LIRTEIIRRENEKO MEZA izango da
igandea, hilak 16, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza elizan
Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.






"Ikastetxea zabalik eta ikusgain lemapean, ate irekien eguna ospatu zuten otsailaren 8an Pilar Ikastetxean"

Goizeko 10:00etan ireki zituzten ikastetxeko ateak, eta ekitaldi desberdinak antolatu zituzten guraso eta umeentzat, ate irekien eguna ospatzeko. Umeentzako tailerrak antolatu zituzten alde batetik. Umeak gela batean bildu, eta irakasleen laguntzaz tailer desberdinetan parte hartzen zuten bitartean,

Hilario Garrudo psikologoak "Haurraren eboluziozko garapenaren ezugarriak" hitzaldia eskaini zuen. Guraso asko bildu ziren hitzaldi honetan, eta gauza interesgarri ugari entzuteko aukera izan zuten. Honekin batera, Ulises eta ingeles proiektuei buruzko bideo emanaldiak ere eskaini zituzten. Gurasoek ikastetxea bisitatu eta zuzendariarekin hitz egiteko aukera izan zuten, eta eguerdi aldean, Pilar Ikastetxera gerturatu ziren guztiek luntxa izan zuten.



Haur Hezkuntzako gelak eta haurtzaindegia inauguratu ziren otsailaren 8an Elgoibar Ikastolan



Aureskua dantzatzuz hasi zen inaugurazioa goizeko 11:00etan. En•azu bertso eskolako ikasleek, bertsoak abestu zituzten, eta ondoren, gelak eta haurtzaindegia ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren guztiek. Eraikin berria 10 gela berrik osatzen dute, eta haurtzaindegia gaur egungo gurasoen beharren arabera diseinatuta dago. Goizeko 7:30etatik arratsaldeko 19:30etara, etxeko giroan, elkan•ekin moldatzen ikasteko aukera izango dute haurrek. Jende ugari bildu zen Ikastolan. Irakasle, guraso, ikasle, haur eta ikasle ohi asko izan ziren gela berrien inaugurazioan, eta Udaletxeko zinegotziak ere bertan bildu ziren. Haurrentzako tailerrak eta jolasak antolatu zituzten, eta eguerdi aldean luntxa izan zuten Ikastolara hurbildu ziren guztiek. 13:00ak aldera amaitu zen ekitaldia.

Ate irekien eguna ospatu zuten Elgoibarko Herri Eskolan otsailaren 8an

Elgoibarko Herri Eskolak, urtero bezala ate irekien eguna ospatu zuen joan zen otsailaren 8an. Goizean, haurrentzako tailerrak antolatu zituzten. Talde desberdinetan bilduta, makilaje eta marrazketa tailerrak landu zituzten. Honekin batera, gaztelu puzgarriak ere izan ziren, eskolako patioan, eta ziur ez zela inor saltorik egin gabe etxera bueltatu.

Bitartean, eskola irekita egon zen, gurasoek ikastetxea bisitatzeko. Eguerdian irakasle, ikasle eta gurasoek bazkaria egin zuten, eta arratsaldean etxeko txikitxoek Pattin eta Pottin pailazoen emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Pailazoekin barre egin ostean, txokolatada izan zuten Herri Eskolara hurbildu ziren guztiek.



TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronalua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Ktroldego	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturte	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 22
Gara	943 31 69 99

in ormazioa

EGUNEZ

14	Ibañez
15	Bidasolo
16	Bidasolo
17	Etxeberria (Santa Ana kaleani)
18	Fernandez
19	Yudego
20	Zabaleta
21	Etxeberria (Errosario kalean)

GAUEZ

Ibañez
Bidasolo
Bidasolo
Etxeberria
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

*eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA

o igana, Idarraga

Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donostia AMRA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

Eusko Tren

AUTORUS4K

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

LARUNBAT GAUA

PES. AUTOBUSAK

EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

ONDARROA-EIBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

EIBAR-MUTRIKU

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

MUTRIKU-EIBAR

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

EIBAR-AZPEITIA

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

AZPEITIA-EIBAR




Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoibar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel. 902 101210.

Gaztia

BARREN

NAIZ



JULIAN VILLENA

URTEBETE AUSTRALIAN

MAGNOLIK

THE SCREAMIN' CHEETAH WHEELIES

tu Batuetatik datorren banda handi horietako bat dugu The Screamin' Cheetah Wheelies. Taldea Nashville-en sortu zen 1990. urtean eta rocka da bere estiloaren sagai nagusia. Jaio eta lau urtera, 1994ean, argitaratu zuten beren estrai-eko diskoa, taldearen izen berekoa. luesa eta rocka ongi baino hobeto zutu zituzten amerikarrek lan honetan. "Magnolia" bi urte geroago kaleratu zuten, hamar abestiz osatutako Cd-a. Bestalde, lan honen oihartzuna ez zen urrekoaren bestekoa izan. Bluesetik iska bat aldendu eta rock lasaiagoa jorrratu zuten oraingo honetan. Diskoari izena ematen dion "Magnolia" eta "Messenger's lament" dira, agian, rockaren esentziari gehien eusten dioten kantak. Boskote amerikarra beti ikutu oso melodikoa ematen saiatzen da bere abestiei. Eta lan honetako kanta gehientsuenen ardatza, hain zuzen, horixe da, doinu melodiko eta lasaia. Azpimarratzekoa da talde honek bere diskoetan eskaintzen duen produkzio bikaina. an ere, instrumentu guztiak garbi, rekaturik eta soinu ezin hobearekin antzun baitaitezke. Disko honen ostean nashvilledarrek beste hiru lan argitaratu zituzten. Mike Farris-ek, berriz, bandako abeslariak, orain gutxi kaleratu du bere lehen bakarkako diskoa: "Goodnight sun".



Ion Gurrutxaga Arakistain

JULIAN VILLENA

"IngeleSa ikasi Eta hErrialdeA

JULIAN VILLENA ELGOIBARTARRAK (27 URTE) INGELESA IKASTEKO GOGOIA IZAN DU BETIDANIK. BARRUAN ZERAMAN HARRA AKABATZEKO AUSTRALIARA JOATEA ERABAKI ZUEN BERE NESKALAGUNAREKIN BATERA. INGELESA IKASTEAZ GAIN HORREN URRUNA ETA EZEZAGUNA ZITZAIEN HERRIALDEA EZAGUTZEA NAHI ZUTEN. URTEBETERAKO HARTU ZUTEN HEGAZKIN TXARTELA, BAINA 15 HILABETE PASA DITUZTE MUNDUAREN BESTE MUTURREAN.

Zergatik aukeratu zenuten Australia?

Urrun daualako. Ingalaterrara joanez gero hemengo jende askokin topo eitzeko aukeria dao eta erretzaua da kodrillatxua eixia. Hola ingeles gutxi praktikatzeko bildur ginan. Kanada edo Australiara jun dudatan egon ostian, antipodak aukeratu genitxun.

Zenbat denbora egin duzue etxetik kanpora?


2001eko irailaren 8an atera ginan etxetik eta 2002ko abenduaren 12an itzuli ginan. Guztira 15 hilabete izan dia Aus-

tralian, Asia hegoaldian eta Ingalaterran azkenik. Gure asmua ingelesa ikasi eta praktikatzia zan bertan lan eginez.

Zer egin duzue Australian?

Sidneyra ailegatu eta nire ingeles irakaslea izandakuan aman etxian egin gendun lo lehen astian. Ondoren gure kabuz hasi ginan lana topatzen. Lehen 4 hilabetiak lanian pasau genitxun. Ingelesa ikastia zan helburu nagusia, baina dirua azkar juten zala konturatu ginan eta lana topatzea bihurtu

z a n
l e h e n
h e l b u r u a .
A u s t r a -
l i a r r a k o s o
j a t o r r a k
d i a ,



zagutzEra jun naiz Australiara"

baina baitxa oso zorrotzak ere legiak jarraitzerako orduan. Ingelesa menperatu ezian oso zaila da hirixan lana topatzia. Beraz, granja baten egin gendun lan ardixekin jana eta ohian truke 3 astez. Fruta jasotzeko garaixa iritsi zanian, Griffith izeneko herrira jun ginan fruta batzera. 3 hilabete egin genitxun tomateak, meloiak, sandiak, artua... batzen.

Bai, lanian batutako diruakin hiru hilabete pasa genitxun Australia ezagutzen. Furgonetia erosi eta

"Granja baten egin gendun lan ardixekin jana eta ohian truke 3 astez"

Julian Villena

15.000 kilometro Australian zihar. Bidaiarientzat oso ondo prestatutako herrialdea da. "Rest area" edo deskantsu gunez beteta dago eta hauetan dutxak edo doaneko barbakoa egiteko aukeria dao.

[kustraliako ngisgj13⁹](#)

Oso basatia da, batez ere desertuan. Gizonaren presentzia eskasa da eta naturarekin kontaktua zuzena. Kontinente baten tamainakoa izan arren 20 milioi biztanle bakarrik bizi dia, danak ekialdeko kostaldean pilatuta. Barrukaldean jende gutxi ikusten da eta herri batetik bestera 200 kilometro egon daitezke.

[Zer da gehien gustatu zitzaizt na?](#)

Australiako paraje eta animaliak:

Uluru mendi sakratua, Arrezife Handia, kanguroak, muskerrak... Aborigenekin hitz egin eta beraien egoeraren berri jakiteak asko harritu eta tristatu ninduen. Erreserbetan bizi dira eta alkoholismoak izugarritzko triskantzak egin ditu. Edaten dutenei ez diete erreserbetan sartzen lagatzen. Eskubiderik gabe eta erabat matxakatura bizi izan dira oraintsu arte. 1770ean James Cook-ek Australia deskubritu zutenean "Terra nullius" edo inoren lurrak izendatu zituen. Harez geroztik aborigenak animalia bat gehiago moduan hartuak izan dira. 1975. urtean eskola liburutetan ere horrela agertzen zen oraindik. Euren lurak eta bertako aberastasunak zuzenean esplotatzeko eskubiderik ere ez dake. Jendiak erreserbetara sartzeko ordaintzen daban dirua gobernuak gestionatzen du. Orain euren eskubideen alde borrokan ari dira.

[Ez zinet-r zuzenean itzuli, ezta?](#)

Ez, Sidney-n furgonetia saldu eta Kuala Lumpurrera jun ginan hegazkinez. Ondorengo 4 hilabetiak Birmania, Thailandia, Camboya eta Indonesian pasa genitxun. Thailandia hegoaldian "La Playa" pelikulan agertzen dian hondartzetan egon ginan eta Indonesian, berriaz, bertako tribu batekin 10 egun pasa genitxun irla batian. Aintzinarako janzkera eta kulturria mantenduz bizi zian egurrezko txaboletan.


[Lortu al duzu nahi zenuen ingeles maila?](#)

Beti lortu leike gehixo, baina gustura nago hartu doten mailakin Hortik zihar ibili eta jendiakin hitz egiteko adina, bai behintzat. Jende interesgarri asko ezagutzeko tresna da ingelesa. Gustura geratu naiz eta barruan nakan hartxoa akabatzia lortu dot.

"INDIA HARRIGARRIA"

GOTZON GARATE

Gotzon Garatek bere 28. liburua argitaratu zuen iaz: "Zakurra, zeure laguna". Honen aurretik, ordea, zakurrekin zerikusirik ez daukan beste bat aurkeztu zigun Elkar argitaletxean bertan: "India harrigarria". Liburua Elgoibarko idazleak Asiako herrialde handi horretan eginiko egonaldia fruitua da. Egilearen beraren hitzaurrearen ostean, bidaia kronika hau atal ezberdinetan banatuta dago: "Indiaratzea", "Indiako bizimodua", "Hitz batzuk politikaz", "Arrazakeria", "Emakumea", "Indiako haurrak", "Animaliak", "Erlijioa", "Krimena" eta "Prostituzioa" izenburukoetan hain zuzen ere. Atalik atal, irakurleak hainbat kultura, sinismen eta gizarte kastaren biltoki den lurralde horren berri jasoko du. Horrela, liburuak herrialde horretako errealitate konplexua ezagutzeko balio digu. Hori bai, errealitatea bere gordintasun guztiarekin jasoko dugu. Izan ere, idazle elgoibartar nekazekin ez du liburu honetan bidaia postal idiliko bat erakusten; lurralde latz bezain erakargarri horretako pertsonen bizimodu gogorra islatzen du. Horiekin Gotzon Garatek "India harrigarria" honetan gaur egungo Indiaren erretratua eskaintzen digu.



Jon Eugi

UrtEro bEzala, 2. LOGSEko ikasIEak bErEn Etorkizuna Erabakitzen ari dira. Batzuk oso argi daukatE zer Egin nahi duEn, baina asko dira duda latzak izatEn dituztEnak. Erabakia zaila da bEnEtan, ikasIEarEn etorkizuna dago jokoan. UnibErtsitatEra joan Eta goi mailako ikaskEtak Egin, hEzikEta zikloak... aukEra zabala da, baina Erabaki zuzEna hartzea EZ da batErE Erraza. Aian Alvarez Eta MirEn BastidarEkin hitz Egin dugu bEraiEn Esperientzia kontatzEko. BatEk oso argi dauka zer Egin nahi duEn, baina bEstEak...




GAUZAK ARGI

Aian Alvarez hasieran zalantzan zegoen. Ez zekien Unibertsitatera joan edo ziklo formatibo bat egingo zuen, baina orain argi dauka: "Acuicultura ziklo formatiboa egingo dut". 18 urteko mutil honek, betidanik izan du naturarekiko zaletasuna, eta oso argi zeukan bere ikasketak adar horretatik bideratuko zituela. Lan mundua kontuan hartu beharrean, gustuko duena ikastea erabaki du. Berak azaldu digun bezala, "ez dut nire burua makina batean lanean ikusten, txikitatik gustatu izan zait mundu hau. Garai batean albataria izan nahi nuen, eta azkenean itsaso aldera jo dut".

Ikasleen erabakia gauza askok baldintzatu dezakete, eta horietako bat gurasoen nahia izaten da. Aianen kasuan, etxean bere erabakia arazorik gabe errespetatu dute: "Ahal dudan gertuen ikasteko esan didate, baina bestela ez didate arazorik jarri".

Unibertsitatera edo zikloetarako bidea hartzeko erabakia hartzea izaten da sarritan zailena. Aianek ere duda bera zeukan, baina lan mundura bideratzeko, hobe ikusi zuen zikloetako bidea hartzea, eta gainera, Unibertsitatera sartzeko atek irekita gelditzen zaizkio Bi urteko zikloa da, eta hori egin ostean, Unibertsitatera joan daiteke hautaketa probak egin gabe: "Nire asmoa ziklo hau egin ostean, Itsas Zientzietako goi mailako ikasketak egitea da". Aianek azaldu digunez, oraindik ez



"Ez dut nire burua makina batean lanean ikusten, betidanik gustatu izan zait natura"

Aian Alvarez

daki non burutuko dituen ikasketak, baina Santander, edo Galizia aldera joango da seguruenik. Azterketak bukatu ostean, hautaketa probak egingo ditu, baina inongo presiorik gabe: "Hautaketa probak gaiztatu saiatuko naiz, baina zikloa egiteko behar ez dudanez, oso lasai joango naiz azterketa egitera".

RKIZUNA sokoan

ZALANTZAZ BETERIK

Miren Bastidaren kasua guztiz desberdina da. Neska hau, batxilergoa ikasten hasi zenetik zalantzan zegoen, eta ate guztiak irekita uzten zituen batxilergo programa aukeratu zuen: "Osasun bidea hartu nuen hasiera batean, hala ere, teknologiarenean alorra ere hartzen zuen apur bat. Orain ordea, zientifiko-teknologiko batxilergoa egiten ari naiz". Argi daukan gauza bakarra, unibertsitaterako bidea hartuko duela da, baina zein ikasketa egingo dituen oraindik ez du erabaki: "Edozein ingeniari-tza egingo nuke, optikarekin ere dudak izan ditut, informatika edo diseinu grafikoa... ez dakit". Hala ere, seguruenik ingeniari-tzaren bidetik joko duela azaldu digu. Mirenek ere, etxekoen laguntza osoa dauka, eta hartzen duen erabakia hartuta ere, badaki gurasoek errespetatu egingo dutela.

Alor horretan eskaintza zabala dago Euskal Herrian, eta Mirenek ez dauka kanpora joateko asmorik: "Bilbo, Donostia, Arrasate, edo Eibarren ikasi dezaket, ez dut



"Osasun bidetik batxilergo zientifiko teknologikora pasatu naiz"

Miren Bastida

erabaki, baina Euskal Herrian geratuko naiz".

Azterketa garaian harrapatu dugu Miren Bastida, eta momentuz ondo joan zaizkio. Hautaketa probetarako apur bat urduri omen dago, baina gero Holandara joango da ikas bidaian, beraz, dena lehenbailehen amaitzea nahi du.

GEHIEN ESKATZEN DIREN IKASKETAK

UNIBERTSITATE IKASKETAK

1. Arkitektura tekniko
2. Administrazioa eta enpresen zuzendaritza
3. Ekonomia
4. Ingeneritza industrial
5. Obra Publikoen ingeneritza tekniko
6. Ingeneritza tekniko industrial
7. Enpresariales diplomatura
8. Errepideetako ingeniaria

1112IKETA ZIKLOAK

1. Administrazioa
2. Edifikazioa eta obra zibila
3. Fabrikazio mekanikoa
4. Elektrizitatea
5. Hostalaritza
6. Metala
7. Informatika
8. Arte grafikoa

ERABAKI ZUZENA HARTZEKO AHOLKUAK

Mari Jose Garmendia

Mari Jose Garmendia Elgoibarko Institutuko orientazio departamentuko arduraduna da. Gure artera ekarri dugu, eta ikasleak erabaki zuzena hartzeko hainbat aholku eman dizkigu.

Bigarren Logseko ikasle batek azken erabakia uztailean hartzen du, baina horretarako ahalik eta aurre matrikula plan zabalena egitea komeni da. Mari Jose Garmendiak esan digunez, "aurre matrikula ikaslearen eskubidea da, eta eskubide hori ondo erabili behar da, gero uztailean, ikasleak nahi duena egin ahal izateko". Mari Joseren aholkua argia da: "Zenbat eta duda gehiago, aurre matrikulazio zabalagoa egin behar da". Ikasle



bakoitzak Unibertsitate eta ziklo formatiboetako aukera guztiak biltzen dituen fitxa bete behar du.

Lau gauza eduki behar ditu kontuan: "Euskal Herriko Unibertsitatea, Unibertsitate Pribatuak, kanpoan ikastea edo goi mailako ziklo formatiboak". Beraz, lau puntu horiek ondo bete ezker, eta orientazioa zuzena izan bada, ikasleak aukeraketa egokia egingo du.

Hala ere, hautaketa probaren ondoren, unibertsitatera sartzeko nota kontuan izan behar da. Batzutan ezin izaten du ikasleak aukeraturakoa egin, baina Mari Josek esan digunez, unibertsitatera sartzeko notak gero eta baxuagoak dira.

lots@gabE

Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARREnera. Anirnatu!

@ Aukeratu bi hauetako bat,
Bush ala Aznar?

Bush.

@ Nori oparituko zenioke
"Chapapote" tarta
bat?
Aznarri.

@ Zein
da gehien
errepikatzen
zaizun
ametsa?

A zterketak
direla-eta urduri
nago eta lau
aldiz jo dut lu-
rra hegazkinez
bidaiatzen ari
nintzela.

@ Handia naizenean izan
AwItg

IVEF edo kirolekin zerikusia dau-
kan zerbait egin nahi nuke.

@ Gustuko
modelo/aktore/emakume bat?
Catherine Zeta Jones.

@ Catherine Zeta Jones
txokolatzekoa balitz nondil
hasiko zinateke jaten?
Burutik behera.

@ Zer egiten duzu neska
Twnkoriv~can?
Tontakeriarik egin gabe natural
jokatu.

@ Zer es,
fijatzekc:
a. Nire bihotzeko azukre kox-
korrra?
b. Hori da karrozeria, mekaniko-
rik hehar al dun?
c. Ikasi edo lan egiten duzu?

Aquariusua.

Zinedine Zidane.

@ Zerez mozzorrotuko zinateke

Bush-en maskara bat jantziko nuke.

Momentu txarretan alboan izaten
den pertsona.

Massimo Dutti.

@ Zergatik
jendaurrean?
Mehatxatuko banindute bakarrik.

" Bizitzan dituzun helburnak?
Arazorik gabe eta trankil bizitzea.
Ez daukat anbizio gehiegirik.

@ Etxetik irtetzean egiten
duzun azken gauza?

Nire aitari bronka bota.

Ler ttela eta gustatuko

Kalean egin dudak ekintza on ba-
tegitatik.

@ Zer esango zenioke neska
lagunari titiak operatzeko
asmoa duela esango balizu?

Ez egiteko, gauza naturalak ditut
gustuko.



g

informazioa

TXARTELA

Argazkia
NAN.
Matrikula
4,21 euro

TXARTELA

Ar~zki
a
4,21 euro

441011.50 TXARTELA

Rrgazkia
NAN.
Lan kontratuaren
fragagiria
6,01 euro

Aterpetxeen liburu Oda
salgai 7,80 eurotan

(Europa, Afrika, Amerika, flsia)

taktUK TXARTELA

GAZTEA (14<25 urte)
NAN.
5 euro
Gazte Tzartelarelsin 2,5 euro

HELDUR (25<)
NAN.
11 euro

FAMILMKOA
NAN.
22 euro

TALDEKOA
Partaideen zerrendo
Estatutuen kopio
15 euro
Dohainik EJko elkorteen portaideok

Handia izandakoan... bibliotEkonomoa



111 oak

CRISTINA RUIZ

Cristina Ruiz Lopez elgoibartarrak 23 urte ditu. Batxilergo humanistikoa amaitu ostean, bibliotekonomia ikasketak egiten hasi zen. Zaragozan egin zituen lehenengo hiru urteak, eta lizentziatura Madrilgo Carlos III Unibertsitatean. Elgoibarko liburutegian egin zituen praktikak, eta eskolan ikasitakoa praktikan jartzeaz gain, gauza berri asko ikasi zituela azaldu digu. Orain, Gasteizko Artium museoko liburutegian ari da lanean.

Zer dela eta aukeratu zenuen Bibliotekonomia karrera?

Liburu eta liburutegiaren mundua betidanik izan dut gustuko. Irakasle batek klasean karrera honetaz hitz egin, eta Humanitate arloan irtenbide gehien zuenarikoa bat zela esan zigunean animatu nintzen karrera hau egitera.

Ba al zenekien zer zen Bibliotekonomia?

Nik nekiena liburutegiekin erlazionatutako karrera bat zela. Orduan, karrera hau eskaintzen zuten unibertsitateei gutunak idatzi nizkien, informazio eske, ikasketa planen berri emateko... Orduan konturatu nintzen liburutegietaz gain, beste gauza askotaz arduratzen zela Bibliotekonomia.

Zenbat urteko karrera da?

Lehenik, hiru urte irauten duen diplomatura egin behar da. Orduan titulu bat jasotzen duzu. Gero, nahi izan ezker, bi urte gehiago egin daitezke, Lizentziatura ateratzeko. Beste karreraren bat ikasita ere Lizentziatura egin daiteke, tartean "birtarteko kurtso" bat eginez.

Zein irtenbide dauzka?

Liburutegietaz gain, artxiboetan edota dokumentazio zentroetan egin daiteke lan. Ez zentro publikoetan bakarrik, baita enpresetan edo komunikabideetan ere. Gaur egun oraindik irtenbide ohikoena oposaketak prestatzea da, mundu pribatuan gure premia oraindik ez baitute nabaritzen. Joera hau Estatu B atuetan guztiz aldatu da, beraz etorkizunean hemen ere gauza bera gertatzea espero dugu, informazioaren gestioa ezinbestekoa baita gaur egun.

Animatuko al zenuke jendea karrera hau egitera?

Interesa duen jendea, lehenengo diplomatura ikastera animatuko nuke. Nahiz eta edozein karrera ikasi eta gero Lizentziatura egiteko aukera izan, formazio osoagoa jasotzen da hasieratik Bibliotekonomia egin eta gero.



Eli Moreno
SEXOLOGOA

BILUZIK SEXOLOGIA ZERBITZUA, ETA ZER?

Neskak masturbatzen dira? Ligatzen ahalegintzen banaiz eta ezetz esaten badit? Asko masturbatzea txarra da? Nola jartzen da kondoi bat? Nola jakingo dut noiz nagoen prest txortan jotzeko? Asko maite dut, orduan zergatik ematen dit mina...Batera heldu gaitzke orgasmora? Neskentzako garrantzitsua al da zakilaren tamaina? Kondoia apurtzen baldin bazait, zer?

Nere sexu berdineko pertsonak gustatzen bazaizkit zer? Noiz hartu behar da hurrengo eguneko pastila?

Halako galderak egiten dizkidatenean ez dakit nola erantzun... Nora joan behar da hartzera? Zein antisor-

em gailu da ziurrena? Ez dakit zaur haurdun nagoen, zer egin behar dut? Mutila nere gainean korritzen bada haurdun geratu naiteke?

Morreatzen banaiz HIES-a transmititu diezadakete?

Nola landu dezaket gai hau gela? Sexualitateari buruzko lan bat egin behar dut, nondik hasiko naiz? Lesbiana naizela uste dut, esango dut? Neskak korritzen dira? Lehenengo aldian min ematen du? Ez dut ezer sentitzen!

Halako galderak edo gogoetak badi-tuzu eta norbaitekin konpartitzea nahi badituzu, etorri Biluzik Sexologia Zerbitzura. Bakarrik, lagunekin edo bikotearekin, aukera guztiak onartzen dira.

*Biluzik Sexologia Zerbitzua
Gazte Informazio Gunea. Kultur Etxea.
Bigarren solairuan. Tel 943 74 14 61.
E-maila: biluzikzerbitzua@yahoo.com
Astelehena 17:00-20:00*

rei
w
Mili'' 1 1
nj
1:7 1
ita
rei
u
ci
o
E
tn

q1:1 1(9)04:031wir

3 urte diplomatura eta 2 urte gehiago lizentziatura

rVIM! 41.01 3. A 7.. Iffn pir A Crf_411 k<<

- Informazioaren teknologia
- Dokumentazio analisia
- Informatika
- Dokumentazio hizkuntza
- Material berezien katalogazioa

LIZENTZIATURAKO IKASGAIK

- Estatistika metodoak
- Zuzenbidea
- Bibliometria
- Dokumentuen gestioa
- Edukien analisia



oa.zte
informazioa

*Eigoibarko Gazte Informazio Gunea
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:
Osteguna-ostirala: 17:00-20:00
Larunbata: 10:00-14:00*

Museologia

Arabako Foru Aldundiak museoeekin lotutako ikerketa-proiektuen bitartez, museologiako ikerketa sustatzeko beka eskaintzen ditu lizentziatuentzat. Epea: otsailak 26.

Museologia

Arabako Foru Aldundiak museoeekin lotutako ikerketa-proiektuen bitartez, museologiako ikerketa sustatzeko beka eskaintzen ditu lizentziatuentzat. Epea: otsailak 26.

Pedagogia

Arabako Foru Aldundiak 3 beka eskaini ditu ekintza-pedagogikoen ikerketarako. Lizentziatu titulua eskatzen da. Epea: otsailak 26.

Minusbalitu fisikoentzako beka

Mapfre Medicina Fundazioak minusbalitu fisikoentzako Lanbide Heziketako beka eskaini ditu. Beken helburua ondoko arlo batean lanbide heziketa jasotzea da: autoedukazioa, automozioa, industria kalitatea, aluminiozko arotzeria, kontabilitatea, elektronikak, lorazaintza... Epea: apirilak 15.

Art NalOn Sariak

Asturiaseko Printzerrialde Antzerki, Laburmetraia, Letra eta Arte Plastikoen Art NalOn Lehiaketa antolatatu du. Epea: otsailak 28.

Altube Elkarte

Altube Unibertsitate Elkarteak ipuin labur, olerki eta gidoi lehiaketa antolatatu du. Informazio gehiago, 900 110 111 zenbakian. Epea: apirilak 16.

Enpresa zientzia edo turismo

Nekazal turismoko eta merkataritzako teknikari lanpostu bat betetzeko deialdia, "Tolosaldea Garatzen" Merkataritza Garapenerako Agentziarako. Enpresa Zientzietako edo turismoko lizentziatura edo diplomatura, EGA eta ideia berriak lantzeko gaitasuna izatea eskatzen da. Epea: otsailak 17.

kontzErtuak

OTSAI LA

14 barixakua

BERGARA

Jousilouli, Ekon eta Anger

Jam aretoan

DONOSTIA

Terry Lee Hale eta Petti

Irish Discon (Illumbe)

GAZTEIZ

Reincidentes eta Systema

Azkena aretoan

LEMOA

22:30 Sharon Stoner eta Sorkun

Gaztetxean

OIARTZUN

Dj Pepo eta Koldo

Pagoa aretoan

ZORNOTZA

Javier Krahe

Zornotza aretoan

IRUN

Mourning Beloveth,

The Prophecy eta Autumal

Tunk aretoan

15 zapatua

BERGARA

Brigada Criminal eta Basque

Country Faraons

Gaztetxean

ONDARROA

Asgarth

Kafe Antzokian

LESAKA

Barricada

Zambra

ZIZURKIL (BLUS GAUA)

Tajadores anquinados

Aurrera tabernan

Aurora Beltran

Atxulondo tabernan

00:00 Ñaco Goñi & Bluescavidas

Egarri tabernan

Arima Beltza

Atxulondo tabernan

Los Reyes del K.O.

Aurrera tabernan

BILBO

Budapest eta One of them

Azkena aretoan



Capoeira ikastaroa izango da otsailaren 17tik apirilaren 8ra bitartean

Udal Kirol Patronatuak Capoeira ikastaroa antolatu du otsailaren 17tik apirilaren 8ra bitartean. Jose Da Silva brasildarra izango da irakaslea eta klaseak astelehenero izango dira Arreiturre Institutuko gimnasioan. Maixu brasildarrak otsailaren 1ln institutuan egin zuen ikastaroaren aurkezpena eta bertan eman zituen Capoeirari buruzko hainbat azalpen. Besteak beste, Angolar erako Capoeira erakutsiko duela aipatu zuen, "tradizionalena edo benetako capoeira" bere hitzetan. Afrikar beltzek esklabutzatik ihes egiteko Brasilen sortu zuten arte martzial eta dantza erritualaren arteko



nahasketa dela Capoeira aipatu zuen. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero 943 74 41 15 telefonora deitu.

Elgoibarko Igeriketa Taldeko kideek Azpeitiko txapelketan hartu zuten parte



Elgoibarko Igeriketa Taldeko 9 igerilarik Azpeitiko Igeriketa Txapelketan hartu zuten parte pasa den otsailaren 8an. Benjamin mailako igerilariek bular estiloko 50 metroko proban eta 8x25 m. tximeleta estiloan aritu ziren. Honako hauek izan ziren partehartzaileak: Josu Espilla, Eneritz Aizpitarte, Ainhoa Agirre, Alba Zangitu, Jone Larrañaga, Alejandra Pascual, Alazne Martinez, Maria Barrenetxea eta Aitor Etxeberria. Bestalde, alebin mailan Jagoba Egañak 200 metro libretako proban egin zuen igeri.

Kirola Euskaraz programaren fitxak egiteko bekak aurkeztu dira

Deba bailarako herriek beste urte batez bultzatu dute euskaraz egindako kirol material didaktikoa eta "Kirola Euskaraz" izeneko beken XIII. Edizioa antolatu dute. Deialdi hau, yoga, erlaxazioa eta kirol alternatiboei buruzko fitxa didaktikoak idatzi nahi dituzten guztientzat dago zabalik. Fitxak aurkezteko epea, otsailaren 25ean, martitzenean, amaituko da. "Kirola Euskaraz" programaren barruan Deba bailarako 12 Udal daude eta helburua euskara

bultzatzea da, kirola praktikatzerako orduan zein material didaktikoa egiterako orduan. Kirol arloan lan egiten irakasle eta monitoreek euskaraz klaseak emateko ziztuzten arazoak eta beharrak ikusita sortu zen fitxa didaktikoak egitearen ideia. Azken fitxen aurkezpena pasa den otsailaren 1ln egin zen Debegesak Eibarren dituen instalazioetan. Bertan, soin heziketa, xakea eta naturan praktikatzeko kirolei buruzko fitxak aurkeztu zituzten egileek.

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 1- Orioko **4 (1. erreg.)**
Elgoibar 0 - Touring **0 (Int.)**
Elgoibar **2** - Iintxa **5 (Kad.)**
Berio 1 - **Haundi 1 (Pref.)**
Ikasberri 0 - Elgoibar **3 (Juh.)**
Mutriku **4** - Elgoibar **0 (Neskak)**

Esku pilota

Udaberri saria

Girizia 116 - Lagunak I **22 (Nag.)**
Girizia II 6 - Lagunak II **22 (Nag.)**
Añoaga **22** - Lagunak **16 (Jub.)**
Aloña Mendi **18** - Lagunak **22 (Kad.)**
Altzatarra **8** - Lagunak II **22 (Kad.)**

Areto futbola

Universidad Navarra 6 - Kenci Elg. **3 (Nazional A)**
Jostaldi Kirolak **4** - Lanbroa **2 (lehen maila)**
Lojantzi 10 - Goierri A 0 (Jub.)

Eskubaloia

Tecnomeca Elg.17 - Escolapios **33 (Kad. mut.)**
Pneumax Elg. **19** - Escolapios **22 (Jub. mut.)**
Sanlo Elg.16 - Ermua **21 (Sen. nesk.)**
Usurbil 21 - Gaur **Elg. 10 (Jub. mut.)**
Basauri 12 - Pagoaga **14 (Kad. nesk.)**
Basauri 11 - Cometel **Elg. 13 (Jub. nesk.)**
Bergara **23** - Tecnifuelle Elg. **28 (Senior mut.)**

AGENDA

Areto futbola, Kiroldegian

Zapatua, 15

16:30 Haundi - Gure-Txokoa (Pret.)

Domekia, 16

12:00 Elgoibar- Iintxa (Neskak)

16:30 Elgoibar - Billabona (Jub.)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 19

18:15 Elgoibar - Amaikak-Bat (Jub.)

Domekia, 20

16:00 Elgoibar - Bergara (Inf.)

17:30 Elgoibar - Billabona (Kad.)

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 14

22:00 Lagunak- Intxaurren (Kad.)

22:45 Lagunak - Bergara (Kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 15

17:15 Tecnifuelle - Zarautz (Senior mut.)

18:45 Gaur Elg. - GM Jakion (Jub. mut.)

Domekia, 16

11:00 Pagoaga - Kukullaga (Kad. nesk.)

12:30 Cometel - Kukullaga (Juh. nesk.)

Uxue Alberdik bigarren saria irabazi du Bergarako Maitasun Gutunen Lehiaketan

Gaur, otsailak 14, izango da sari banaketa Bergarako Zabalotegi aretoan

Uxue Alberdi 19 urteko elgoibartar gazteak bigarren saria eskuratu du Bergarako Maitasun Gutunen Lehiaketa ezagunean.

Bigarren sariaz gain irakurle gazteen saria ere irabazi du. 240 euro eta Patxi Diaz de Zeberioaren eskultura egokitu zaizkio Uxueri. Lehiaketako irabazlea Iñaki Serrano 29 urteko Eibartarra izan da. Bergarako Zabalotegi aretoan izango da sari banaketa gaur, otsailak 14, eta bi sarituek euren gutunak irakurriko dituzte jendaurrean 19:00etatik aurrera.

Ezusteko saria

Ez da jaso duen lehen literatur saria izan, baina ilusio handiz eta ezustean izan dela aitortu digu Uxue Alberdik, "Iaz pentsau naban aurkeztia, baina aurten izan da lehen aldixa eta ezustian harrapau nau sarixak. Zapatu baten aspertuta etxera jun eta idatzi naban gutuna da. Printzipioz ez nakan amodiozko gutunik idazteko asmorik eta gutun formarik gabeko amodiozko idatzi bat irten jatan. Gero, data eta bukaeria gaineratu nizkion, baina ez nion inori bidali".




240 euro eta eskultura bat irabazi ditu Uxue Alberdik bigarren sariari esker.

Konplizitatez beteriko gutuna

Maite duen pertsona bati idatzitako gutuna dela aipatu digu, "nahiko gutun arraroa da. Ironia eta umorea nahasten saiatu naiz eta erotiko puntu bat ere badu" Aurrez elkar ezagutzen duten bi pertsonen

arteko konplizitatea nabari dela gaineratu digu Uxuek, "ez da maitasun platoniko bat, igorlea eta hartzailearen artean konfidantza dauala igartzen da eta elkar ondo ezagutzen dutela. Beraiek dira eskutitzian esaten dianak ulertzeko egokixenak".

Eguneroko bizitzan gutunak idazteko ohitura du, "maitasun gutunak gutxi, baina maitasunez idatzitako gauza asko idazten ditzut. Izan ere, nola definitxu leike amodiozko gutuna? Neretzat sentimendu batekin idazten dozun gutuna da". Bestalde, e-posta eta telefono mugikorren garaian asko galdu da eskutitzak erabiltzeko ohitura, baina eskutitz bat jasotzeak askoz ilusio gehiago egiten duela dio Uxuek, "emiliock maitasuna azkar komunikatzeko balioko dute, baina ez dake eskutitzen zeremoniarik: buzoian zure izenakin eta bankokua ez dan karta bat ikusten dozunetik, zabaldu, remitia dakan ikusi, letria, luzeria... ezberdina da. Idazterakuan ere denbora gehixo bihar da eta gauzak asko pentsatu ondoren idazten dira. Eskutitzak ez diala desagertuko uste dot."



Kokoe Komiki Elkartearen neguko fanzinea kalean da VII. Komiki Lehiaketako lan sarituak argitaratu dituzte

Kokoe Komiki elkartearen azken fanzinea kalean da jadanik. Aspaldi argitalpenik atera gabe zeuden Elgoibarko komikizaleak eta oraingoan Elgoibarko VII. Komiki lehiaketako lan sarituak argitaratu dituzte

Kokoeko kideen lanekin batera. Antxon Alvarez, Iban Barrenetxea, Ander Sanchez, Iñaki Raigoso, Jairo Ibarra, David Garrido, Joseba Otaegi eta Juan Antonio Martinez herritarren komiki eta idatziez gain, J.M Serrano madrildarra-

ren "Yo mate al hombre del saco" lan irabazlea eta Josu Mitxelena oiartzuarren "Estatu Batuetako Hauteskundeak", bigarren saria merezi izan zuten komikia ikus daitezke. Trapagako Amaia Ballesterosen "Tarzanete" (3. saria) eta Joseba Larretxe irundarraren "Delirium Tremens" (akzesita) komikiak ere argitaratu dituzte. 38 orrialde ditu Elgoibarko Udalaren laguntzaileekin argitaratu den fanzineak eta 1,50 eurotako salneurria.



ANA OROZKO

EZKONTZARI INGURUKO GOGOETAK erakusketaren egilea

ij 15 urterekin cene(diote ez direla ezkoncw(o, Da i na muncu guztia jausten da"

1nauteriak inguratu ahala ikuskizun bat edo beste antolatzeke ohitura zuten artista elgoibartar batzuk. Iaz Sinuose kolektiboa izenburupean bildu ziren eta aurren ere pare bat ikuskizun prestatu dituzte. Lehena, Ana Orozko eibartarrak antolatu duen erakusketa da. Iban Urizar elgoibartarraren laguntzarekin egindako "Ezkontzari buruzko gogoetak" hausnarketa artistikoa da. Errumaniara eginiko bidaiak sortutako pentsaerak era artistikoan gauzatu dituen gazte honek argazkia, bideoa eta soinuarekin jokatuz prestatu du erakusketa. Otsailaren 14tik 23ra bitartean izango da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan.

• Zer aurki dezakegu Ezkontzaren inguruko gogoetak erakusketan?

Bizi garen gizartean ezkontzeak duen esanahia edo berarekin dakarrena aztertu nahi izan dut. Sentsazio bat nuen, emaztegai guztiak pronovias edo antzerako lekuren batera joaten zirela eta han egiten zituztela prestakuntza denak, alegia. Erasmus programari esker Arte Ederretako azken kursoaren 4 hilabete pasa nituen Errumanian eta han gauzak beste modu batekoak zirela ikusi nuen.

• Zer aurkitu zenuen Errumanian?

Denda asko ezkontzetarako bakarrik espezializatuta zeuden. Txapelak, zapatak, soinekoak eta denda batean pasteletan jartzen diren panpinak bakarrik saltzen zituzten. Beste ezberdintasun bat dena begien bistara zegoela zen. Han, ezkontzea sozializatuagoa dago, kalean dago ezkontzeko irrika hori. Erakusleihoei aurrean soineko bati begira biltzen zen emakume multzotan igartzen zen. Hemen, berriz, ezkutuan dago, nahiz eta ezkontzeko gogo hori badagoen.

• Zer egin zenuen ondoren?

Kuriosoa iruditu zitzaidanez, erakusleihoei argazkiak ateratzen hasi nintzen eta soineko bat erosi nuen, jantzi, eta argazkiak ateratzeko.

• Ezkontzak sortzen dituen beldurrak islatzen ere saiatu zara?

Bai. 15 urterekin ia denek esaten dute ez direla ezkonduko, baina gero mundu guztia jauzten da. Asko egun polit hori bizitzearren ezkontzen direla uste dut eta baiezkoa eman ostean beldurra sartzen zaio askori, zer nabil? galdetzen diote beraien buruei. Sentsazio honekin jokatu nahi izan dut.

"Emaztegai guztiak pronovias-era joaten ziren sentzazioa nuen"

• Ezkontzetarako egiten diren argazkien kritika ere egiten duzu?

Bai. 2003. urtean gaude eta ateratzen diren argazki denak antzerakoak dira. Pixka bat ridikulua iruditzen zait horren gutxi aldatu edo eboluzionatu izana.

• Argazkia, bideoa eta soinua nahasten ditu erakusketak, ezta?

Bai, argazkiak bakarrik erakutsi beharrean giro bat sortu nahi nuen bideoa eta soinua laguntzarekin Argazkietan laguntzeaz gain, Iban Urizarrek jarri die soinua nire sentsazioei.

• Zer ezberdintasun gehiago daude Errumaniako eta hemengo ezkontzen artean?

Zapatuetan ezkontzen ziren eta harrigarria zen emaztegai pilo bat kalean batera ikustea. Ezkontzak beharrean jaunartzeak gogoratzen zizkidaten. Humanoagoak eta apalagoak iruditu zitzaizkidan. Hemen pertsonalagoa da, zure ezkontza da bakarra. Bestalde, Errumanian gure txikitako argazkietan ikusten diren fondoak modukoa da. Denboran 20 urte atzera egitea modukoa da, errepideak zuloz beteak, karroak, emakumeen orrazkerak, janzkera...

• Beste erakusketarik antolatu izan al duzu?

Bai, Errumanian geundela jatorri desberdinetako jendeak euren artean pike asko zituztela konturatu ginen, hungariarrek errumaniarrek, etab. Eraikuntzei ateratako argazkien irudiak kamisetetan serigrafiatu eta gure lagunei pertsonalizatutako kamiseta bana eman genien. Erakusketa egunean denak kamiseta jantzita agertzeko eskatu genien eta kamiseten aitzakiarekin denak elkar erlazionatzea zen gure nahia. Bakoitzaren hizkuntzan idatzitako testuak ere banatu genizkien: errumaniaraz, hungariarrez, euskaraz, italiarrez eta frantsesez.

114 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak informatika teknikaria behar du.
Erref. 95704/2

Eibarko enpresak programatzailea behar du. Erref. 95661/3

Eibarko aldi baterako enpresak fruteroa behar du. Erref. 96325/2

Eibarko aldi baterako enpresak arraindegirako langilea behar du. Erref. 96319/2

Eibarko aldi baterako enpresak harakina behar du. Erref. 96313/2

Durandaldeko aldi baterako enpresak peoi espezialista behar du. Erref. 95417/4

Donostialdeko enpresak teknikaria behar du. Erref. 95504/3

Durandaldeko aldi baterako enpresak soldatzailea behar du. Erref. 95418/3

Donostialdeko enpresak optikoa behar du. Erref. 95051/2

Bidasoabarreneko enpresak kamioi gidaria behar du. Erref. 94663/5

Donostialdeko enpresak programatzailea behar du. Erref. 96010/2

Donostialdeko aldi baterako enpresak administraria behar du. Erref. 96063/3

Urola Erdiko enpresak instalatzaile elektrikoak behar ditu. Erref. 96480/2

Donostialdeko enpresak elektronikoa behar du. Erref. 96583/2

Donostialdeko enpresak ingeniari elektronikoa behar du. Erref. 96581/2

Donostialdeko enpresak ingeniari mekanikoa behar du. Erref. 96585/2

Hautagai moduan sartzera eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramen) 943 74 41 32 telefonora.

Iana

ESKAERA

* Emakumea etxeko lanak egin edo gaixoak zaintzeko prest.
943 03 03 21 (Mertxe)

Emakumea, asteazkenetan garbiketa lanak egiteko prest.
zr 943 74 22 01 (Araceli)

4 Emakumea sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest.
943 75 62 79

ESKAINITZA

e Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.
943 74 45 82 (20:00-22:00)

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

Etxebizitzak

♦ Pisua salgai Deban. 3 gela, 2 komun. v 606 98 37 06

4 Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. Mutil arduratsua.
943 74 01 96 Karmelo (11:00-15:00/17:00-23:00)

♦ Pisua salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, igogailua, eguzkitsua.
v 659 14 12 32

♦ Elgoibarren etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira.
943 74 46 66/615 76 55 15

*Etxebizitza salgai Berrizen. Berrituta, amueblatuta, bizitzera sartzeko moduan. 77 626 84 18 70

Lokalak

+ Karabana gordetzeko lekua behar da. Garajea, lokala, baserria...
tr 943 74 04 66/605 77 53 57 (Inazio)

* Madalako etxe berrietan 5,5m²ko trasteroa alokatzen da.
605 773 453

Bestelakoak

+ Mini disk bat galdu nuen otsailaren 10ean, funda beltz batean. Norbaitek aurkituko balu, deitu mesedez.
Tr 943 74 88 64

* Banco Bilbao Kutxan mendiko bastoia utzi nuen joan zen igande arratsaldean. Aurkitu duenak mesedez deitu.
687 05 42 66

Salerosketak

♦ Renault Clio 1.9 Diesel autoa salgai. SS-BB. v 619 18 78 09

♦ Aixan 400 autoa salgai. Gida baimenik gabeko autoa. Egoera onean.
IT 943 74 85 79/943 74 05 13

Lur saila salgai Elgoibarren.
15.000m² eta 15 urteko pinuarekin.
tr 943 03 35 03

♦ Bigarren eskuko furgoneta erosiko nuke. a 653 01 10 43 (18:00etatik aurrera)

♦ Citroen ZX familiarra salgai. SS-AY 4.800 euro. Ier 943 74 23 25

* Play Station 1 salgai. Urtebete du eta pirateatuta dago. 4 joku eta 4 Demo memory card-ean. 100 euro.
ct 943 74 23 63 (Javi)

♦ Kotxea salgai, egoera onean, merkea. 2003ko zerga municipal ordainduta, ITV pasatuta.
6 656 72 44 01 (18:00etatik aurrera)

Garajeak

* Garajea Leku Ederren. 3. solairuan, egoera onean. a 660 79 53 01

* Garajea salgai Pista Beltzean. Prezio interesgarria. Itir 607 76 17 42

Garajea salgai Pedro Muguruza 11 Etorbidean. (Marraduna)
943 74 28 24

Garajea alokatzen da Pedro Muguruza 11 Etorbidean. 943 13 07 19

* Garajea alokatzen da Pedro Muguruza zako garajeetan. v 943 74 06 05

Partikularrak

* Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ingeles filologian zentziatua. 10 urteko esperientzia daukat. v 943 74 31 67 Nekane

† Frantsezeko klase partikularrak ematen dira Eibarren. v 943 20 31 56

Anchústegui**Sanyfer**

ESPOSIZIOA ALMAZENA BULEGOA

Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11




IEIF 40ft1044 55. Coep.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



Zorionak **Javier**, bihar 4 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez.



Zorionak **Iban Zapatari**, otsailaren 1 Oean 10 urte bete zituelako. Gurasoen, eta Iker eta Ainhoa anai arreben partez, muxu handi bat.



Zorionak **Aitor Larratigari**, otsailaren 7an 3 urte bete zituelako. Elgoibarko familiakoenn partez.



Zorionak **Mikel Zureu**, tebetetzean muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak **Janire Izagirre**, otsailaren 1 2an 3 urte bete zituelako. Aita, ama eta familiakoen partez.



Zorionak **Kepa**, otsailaren 3an 2 urte egin zenuelako. Maxipandi eta Minipandiren partez.



Zorionak **Iñaki**, zure 4. urtebetetzean. Etxekoan partez, muxu handi bat.

Elgoibarko Izarrak eta Udalak elkarlanean gestionatzen duten
GUREAN BAI-MERKATARITZA proiektua dinamizatzeko

EUSKARA TEKNIKARIA BEHAR DA

ESKATZEN DA:

- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz)
- Harremanetarako dohainak
- Soziolinguistikaren oinarriak ezagutzea
- Elgoibar edo inguruan bizitzea

BALORATUKO DA:

Informatika ezagupideak

ESKAINTZEN DA:

Egun osoko kontratua

Curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte, Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)

E-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

izena emateko azken eguna: otsailak 21

14 BARIKAKUA

**19:00 "EZKONTZARI
BURUZKO GOGOETAK"
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA**

Ana Orozkoren lana
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Sinuose kolektiboa
Otsailaren 23ra arte

16 DOMEKIA

19:30 MENDI IRTEERA

Nora: Pagoeta (Zarautz)
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

17 ASTELEHENA

18:30 HITZALDIA

Gaia: Globalizazioa
Hizlaria: Arturo Garcia
Antolatzailea: Parrokiako Misio
Taldea

18 MARTITZENA

18:30 GERNIKA DEIALDIA

BILERA
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Gernika Deialdia
Elgoibar

20 EGUENA

19:30 HITZALDIA

Gaia: "Prestige" sarea
Hizlariak: Kalegorria aldizkariko
Ikerkuntza taldeko kideak
Antolatzailea: kalegorria
Kultur Etxean

21 BARIKAKUA

20:30 BERTSO AFARIA

Bertsolariak: Iñigo Izagirre eta Iñaki
Gurrutxaga
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte Asanblada
Tiketak: Txuri Beltz eta Iratxo
tabernetan
20:30 ZINE FORUM-A
"Sentido y sensibilidad"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

BILERAK

Gernika Deialdia

Gernika Deialdia martxan dago aspalditik Euskal Herrian zehar eta orain, azaroan Gernikatik Euskal Herri osora luzatutako mezua Elgoibarrera heldu da. "Hemen ere lekukoa jasoz, plataforma zabala sortu nahi da helburu berarekin: abertzaleak eta ezkertiarrek sentitzen direnak bertan elkartu eta euskal herritarrei dagozkien eskubideak berreskuratzeko asmoz ilusioz lan egin, bakoitzak ahal duen neurrian. Aportazio guztiak beharrezkoak direnez pertsona bakoitzak ideia berriak proposa ditzake. Ardatz nagusi moduan 3 hauek proposatzen dira: Autodeterminazioaren alde egotea, eskubide demokratikoaren defentsa eta ezkerreko ikuspegia". Bilgune edo plataforma hau martxan jartzeko lehenengo bilera otsailaren 18an, martitzenean, izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan 18:30ean.

IKASTETXEAK

Ingeniaritza IMHn

Datorren otsailaren 19an, eguaztenean, IMHko ingeniartzari buruz saio bat egongo da; bertan ikasketen berezitasunak azaldu eta IMHko instalazioak ikusi ahal izango dira. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da joan nahi duen edonorentzat irekia den saioa. Norbaitek informazio gehiago nahi badu 943 74 82 64 telefonora dei egun dezake.

ZINE klubak



"La Pizarra"

Zuzendaria: Samira Makhmalbaf.

Iraniar Kurdistaneko lurraldeetan baldintza gogorretan egindako errodate lan interesgarria erakusten duen ikuskizun errealista dugu, baina ekialdeko zinegintzaren kutsua isladatuz literaltasuna eta metafora uztartuz maisutasunez. Azpimarragarria zinegintzarako ez oso baldintza baikorretan, nola zinegile gazte honek, profesionalak ez diren antzele taldearen lanari esker, eta argazki zuzendariaren lan apartarekin pantailataratuko ditu bere bilakaeran gai konstanteak direnak, konpromiso politikoa eta jakin-mina eta ezagutza moduko baloreen aldarrikapena.



HITZALDIAK

Globalizazioa

Parrokiako Misio Taldeak Globalizazioaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Gizakiarengan horren eragin handia duen gaia izanik, kristau konpromisoak bultzatuta antolatu dituzte hainbat hitzaldi. Otsailaren 17an (astelehena) eta 24an eta martxoaren 3an eta 10ean izango dira hitzaldiak Parrokiako aretoan (Trenbide kalea). Arturo Gareia izango da hizlaria eta saio guztiak arratsaldeko 19:30ean hasiko dira eta bi orduko iraupena izango dute. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Prestigen sarea

Kalgorria aldizkariak 18. zenbakian Prestige sarearen inguruan ikerketa taldeak egindako lana kaleratu du. Ikerketa lan hau zabaltzeko asmoarekin, hitzaldiak antolatu dituzte aldizkari arduardunek Euskal Herriko herri eta hiriburuetan. Elgoibarren, otsailaren 20an, eguenean, eskainiko dute hitzaldia Kalegorriako Ikerkuntza Taldeko kideek. Kultur Etxean izango da 19:30ean.

IKASTAROAK

Igeriketa ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak 3 urtetik gorako haurrentzat eta igerian hasi edo hobetu nahi duten helduentzat ikastaroak antolatu ditu. Otsailaren 24an hasiko dira klaseak Olaizaga Kiroldegian. Izena emateko Olaizaga kiroldegira jo. Telefonoa: 943 74 44 15.

DANTZA

Haritz Euskal Dantzari Taldea

Haritz Euskal Dantzari Taldeak Juan Antonio Urbeltzen azken lanean hartuko du parte. Donostiako Argia dantza taldearen ikuskizun berriak Pas de Basque du izena. Hurrengo ekitaldia otsailaren 16an, domekan, izango da Donostiako Kursaal aretoan. Bertan, Pas de Basque ikuskizunaren zati bat eskainiko dute 20:00etan. Bizkaiko dantzak. Otsailaren 23an, berriz, Bilboko Arriaga antzokian izango da ikuskizuna 20:00etan.

AFARIAK

Bertso afaria

Gazte Asanbladak bertso afaria antolatu du Txotx eta guzti. Otsailaren 21ean, barixakuan izango da Gaztetxean. Parte hartuko duten bertsolariak Iñigo Izagirre itziartarra eta Iñaki Gurrutxaga oriotarra izango dira. Bi bertsolari gazteok lehen eta bigarren postuan geratu ziren hurrenez hurren Plazatik Gaztetxera 2002 Bertso Txapelketan. Afaria arratsaldeko 20:30etan hasiko da eta tiketak Txuri Beltz eta Iratxo tabernetan eros daitezke. Langabetuentzako prezioa 9 eurokoa izango da eta langileentzat, berriz, 12 eurokoa.

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"El señor de los anillos II"

14, barixakua: 22:15

15, zapatua: 19:30-22:15

16, domekia: 19:30-22:15

17, astelehena: 22:15

"La Pizarra" (Zine Kluba)

20, eguena: 22:15

"The Ring"

21, barixakua: 22:15

EIBAR

Unzaga

"Kamchatka"

14, harixakua: 19:30-22:15

15, zapatua: 17:00-19:30-22:30

16, domekia: 17:00-19:30-22:30

17, astelehena: 19:30-22:15

18, martitzena: 19:30-22:15

19, eguaz :30-22:15

Rialto

"Ries remo"

14, barixakua: 19:30-22:15

15, zapatua: 17:00-19:30-22:15

16, domekia: 17:00-19:30-22:15

17, astelehena: 19:30-22:15

18, martitzena: 19:30

19, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.



"El señor de los anillos"

Zuzendaria: Peter Jackson.

Antzezleak: Elijah Wood, Liv tyler, Viggo Mortensen.

Eraztunaren komunitatea desegin da jadanik. Aragorn, Legolas eta Gimlik, Merry eta Pippin hobbit axolagabeak bahitu dituzten Uruks beldurgarrien atzetik abiatzea erabaki dute. Bien bitartean Frodok eta Sam bere lagun leialak, etsaiaren lurretan zehar jarraitu dute bidaia Itxaropenaren mendira bidean. Bertan bakarrik suntsitu daiteke eraztuna. Sauron beldurgarriak eta Saruman aztiak indarrak batu dituzte, ordea, indar izugarria duen orkoz osaturiko ejertzitza sortuz.

N

m



A

ste honetako erretratu zaharra Elgoibarko euskaltzale batek laga digu. Argazkia Elgoibarko lehenengo Ikastolaren ondoan aterata dago, hau da. Ego-Toki elkartearen parean. 1963. urtekoa dugu erretratua. Bertan Itziar Ajuria irakaslea ageri zaigu haur mordo batekin. Itziar Ajuria bera izan zen Ikastolako lehenengo irakaslea. Talde honetako ume guztiak ezagutzea oso zaila egin zaigu, baina norberak bere burua seguru ezagutuko duela. Esan digutenez, senar-emazte izatera iritsi diren haurrak ere, badira talde honetan.

- Goian bego -



JUANJO
SAN MARTIN
"ALDAI"

1992ko otsailaren 17an
hil zen 47 urte zituela.

XI. URTEURRENA

*Baldin eta, ni hil eta gero,
nere bizitza idatzi nahi balute,
errazagorik ez da ezer
bi egun besterik ez dute:
jaiotza eta heriotza egunak.
Bien artekoak
nereak dira.*

Ane eta MASun

URTEURRENEKO MEZA izango da
larunbata, hilak 15, arratsaldeko 19:00Detan Parrokian.

GREVIOEN G1DA

ARROZTEGIA:K

ARANZADI

Olaso 55 - CH
u 943 74 34 78
zr 670 42 76 63

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
u 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
u 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
u 943 74 34 90

LURRA

Santa Klara, 28 Behea
943 74 40 50

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
u 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
u 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Da kal^a, 16
u 943 74 03 96

ERREFORIVIAK eta PROIEKTUAK

ETXEKIT

Antonio Arrillaga, z/g
II' 943 74 43 47

ITURGINTIA

ANGEL

Santa Ana, 5
Ir 943 74 17 61
zr 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioa
943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
u 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
u 943 75 50 62
u 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
Zr 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
171 943 74 07 89
Ir 608 14 30 40

PINTURAK

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
u 943 74 15 52
u 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
171 943 74 04 40
u 607 74 04 40

PROIEKTUGILEAK

JESUS MI GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
u 670 41 20 73

ELEKTRIZITATIA

ARAMAR

Morkaiko, 1
Tr 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
tr 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
u 943 74 09 02
u 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
u 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
u 943 74 29 87
u 679 19 77 47

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabilioa
u 943 74 30 94



10 URTE BEZEROAREN ZERBITZURA

ELGOIBAR

Olaso, 27
Tel. 943 74 32 00

EIBAR

Otaola, 27
Tel. 943 20 25 00

AZPEITIA

Urola, 6
Tel. 943 15 12 60

ARRASATE

San Andres, 10D
Tel. 943 77 21 00

TOLOSA

Usabol Pol. 22
Tel. 943 67 40 29

BEASAIN

Nafarroa, 45
Tel. 943 88 34 00

OLABARRIA

Karobi Industriaidea
Tel. 943 88 51 50

DONOSTIA

Zumalakarregi, 1
Tel. 943 31 22 00

IRUN

Pinar, 21
Tel. 943 61 02 00



INSTALAZIOAK

Egungo instalazioak
Ekimamendu modernoak
Puntako teknologia

Erosotasuna bilatzen duena
Potentzia eskaintzen duena
Ingurumenaz arduratzen dena
3 urteko bermea ematen duena

Humanoa, Hurbila
eta Profesionala

Zatoz, eta goza ezazu Hyundai auto bat gidatzen.

MENDARO AUTOAK E-posta: hyundai@mendaroautoak.com [http //www hyundai com](http://www.hyundai.com)